


Txostena
LURRIKARA NEPALEN
2015eko APIRILAREN 29a



SARRERA ETA EGUNGO EGOERA

Nepal, 2015eko apirilaren 25a. Richter-eskalan 7,8 graduko magnitudea zuen lurrikara batek, epizentrotik (Katmandu) 77 kilometrora zuenak, Nepaleko erdialdean izan zuen eragina, herriak, hiriak eta azpiegiturak suntsituz, eta milaka lagun heriotza ekarritz.

Seismoaren ondorengo egunetan magnitude desberdinetako $-4,6$ eta $6,6$ gradu bitartean -70 erreplika baino gehiago izan ziren, eta lurrraren lehen dardara jasan ahal izan zuten etxeak eta tenpluak suntsitu zituzten.

Nazio Batuen Laguntza Humanitarioko bulegoaren arabera (OCHA, ingelesezko sigletan), lurrikara honek $-azken 80$ urteetako handiena $-$ Nepaleko 75 barrutietatik 39 hartu ditu eraginpean, herriaren erdialdeko eta mendebaldeko eskualdeetan, kalte handiak eraginez oso urrun dauden herrixketan nahiz Nepalen jende gehien bizi den bi hirietan, Katmandu eta Pokhara. Seismoak India, Bangladesh eta Txinako mugetako hainbat gune ere barnean hartu ditu.

Hondamendiaren inpaktua

Hildakoen kopurua.	6.000 lagun (gutxi gorabehera).
Zaurituen kopurua.	6.000 lagun (gutxi gorabehera).
Desagertutakoen kopurua.	MILAKA LAGUN
Etxebizitzen suntsipenak eragindakoen kopurua	100.000

8 milioi lagun baino gehiagok laguntza humanitaria behar dute



BERTAKO ELIZAREN ETA CARITAS SAREAREN JARDUNAK

Eliza, Nepaleko Caritas eta lurrikara gertatu baino lehen bertan zeuden Nazioarteko Sareko kideak (adibidez Australiako eta Estatu Batuetako Caritas) hasieratik mobilizatu ziren eraginpekoiei laguntza emateko, biktimak erreskatatzeko lanetan, premia larrienen ebaluazioan eta larrialdiko laguntzaren banaketan lagunduz.

Krisi horren aurrean, bertako agintariak eta agentzia humanitarioek ohartarazi dute biztanleen premiak oso handiak direla, eta batez ere aterpea, ura eta janaria behar dute. Ez da batere lan erraza kaltetuengana iristea eta erreskate-lanekin jarraitzea, komunikazioen kolapsoa, azpiegituretan eta garraioetan izandako kalteak, etengabe ari duen euria eta herriaren geografia zaila kontuan izanik.

"Jende askok etxea galdu du eta kaleetan edo gune irekietan dago, gaueko tenperatura baxuak jasan behar izanik. Guztioi elikagaiak, ura eta aldi baterako aterpea ematen saiatzen ari gara", azaldu zuen aita Pius Perumanak, Nepaleko Caritaseko zuzendariak.

Lehen egunean Nepaleko Caritasek plastikozko lonak eta hainbat karpa banatu zituen etxeak galtzeagatik edo erreplikak jasateko beldur izateagatik kalean lo egin zuen jendearen artean; jendeak Nepaleko lurraldean dauden hainbat elizatan ere bilatu zuen babes. Elikagaiak banatzeko lanari ere ekin zitzaion, biztanleen artean janari-premia handia baitago. Lurrikara gertatu zenetik lau egun igaro diren arren, bertako saltokiek eta azokek itxita jarraitzen dute.

Aldi berean, Caritas Internationalisek (CI) larrialdiei erantzuteko dituen egitura guztiak mobilizatu zituen Nepaleko Caritasek abian jarritako operazioari laguntza emateko, eta Nepaleko Caritas eta Nazioarteko Konfederazioko gainerako kideak koordinatzeaz arduratu zen. Gainera, eskualdean sorospen-materialak erosten hasi da, kaltetuen premiei erantzuteko. Estatu Batuetako Caritas ere (CRS) Indiako iparraldetik larrialdiko hornigaiak bidaltzen ari da, Caritas-sarea Nepalen egiten ari den laguntza-operazioei babes emanaz.

CÁRITAS NEPALEKIN KANPAINA

www.caritasgipuzkoa.org

cooperacion@caritasgi.org

943-44 07 44

ERAKUNDEA	KONTU ZK.
KUTXABANK	2095 5001 17 1062435374
LABORAL KUTXA	3035 0060 41 0600100001
BBVA	0182 5709 41 0010011112
LA CAIXA	2100 5608 34 0200106577